

SAILBURUA  
EL CONSEJERO

**AGINDUA, 2014KO EKAINAREN 27KOA, HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIAKO SAILBURUARENA, EUSKADIKO UDAL LEGEAREN AURREPROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONARTZEN DUENA**

**ORDEN DE 27 DE JUNIO DE 2014, DEL CONSEJERO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA, POR LA QUE SE APRUEBA CON CARÁCTER PREVIO EL ANTEPROYECTO DE LEY MUNICIPAL DE EUSKADI**

2014ko urtarrilaren 9ko Aginduaren bidez, Euskadiko Udal Legearen Aurreproiektua lantzeari eta izapidetzeari ekitea erabaki nuen, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrien eta gainerako toki-erakundeen araubide juridikoa arautzeko.

Mediante Orden de 9 de enero de 2014 acordé la iniciación de la elaboración y tramitación del Anteproyecto de Ley Municipal de Euskadi, para regular el régimen jurídico de los municipios y demás entidades locales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legeak, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzkoak, 7.1. artikuluan ezartzen duenez, xedapen-proiektu orokorrak idatzi ondoren, prozedura hasteko agindua eman duen organo berak onartu beharko ditu xedapen-proiektu horiek, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak bideratu aurretik.

El artículo 7.1 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General establece que una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, estos deberán contar con la aprobación previa del órgano que haya dictado la Orden de iniciación, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan.

Hori dela-eta, egindako lege-aurreproiektua ikusita, eta urtarrilaren 9ko Aginduarekin bat etorriz, honako hau

Por todo ello, visto el texto del Anteproyecto de Ley elaborado, y de conformidad con la Orden de 9 de enero anteriormente citada,

**XEDATZEN DUT****RESUELVO:**

**Lehenengoa:** Aldez aurreko onarpena ematea Euskadiko Udal Legearen Aurreproiektuari.

**Primero:** Aprobar, con carácter previo, el texto del Anteproyecto de Ley Municipal de Euskadi.

**Bigarrena:** Lege-aurreproiektua egiteko prozedura jarraitzeko agindua ematea; hala ezarrita dago, batetik,

**Segundo:** Ordenar la continuación del procedimiento de elaboración del Anteproyecto de Ley; de conformidad



Herri Administrazio eta Justiziako sailburuak 2014ko urtarrilaren 9an emandako Aginduan, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio Euskadiko Udal Legearen Aurreproiektua egiteari eta bideratzeari, eta, bestetik, abenduaren 22ko 8/2003 Legean, Xedapen Orokorrak egiteko Prozedurari buruzkoan.

con los trámites establecidos en la Orden de 9 de enero 2014 del Consejero de Administración Pública y Justicia por la que se acuerda la iniciación de la elaboración y tramitación del Anteproyecto de Ley Municipal de euskadi, y en la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 27a  
En Vitoria-Gasteiz, a 27 de junio de 2014

Josu Iñaki Ercoreca Gervasio

**HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIAKO SAILBURUA**  
**EL CONSEJERO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA**